

Erloju baten barrenean jaio zen

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Erloju baten barrenean jaio zen. Tik-tak, tik-tak kulunkatzen zen bere sehaska, eta erritmo automatiko horrek lokartzen laguntzen zion. Handitzen joan zen eta une bat iritsi zen jada ez zituen orratzen pausoak aditzen. Bihotz taupadak bezala, badakigu hor daudela, etengabe, baina normalean ez ditugu sumatzen.

Koxkortu zenean, amari erlojuaren makinariari olia ematen laguntzen hasi zen. Garbitzen ere ibiltzen zen, eta zerbait puskatzen bazen, konpontzen ikasi zuen. Gaztetxotan, erlojuaren zirkuaren eta oinarriaren artean zegoen

balkoian jarri eta geltokira so egoteko ohitura hartu zuen. Luze egoten zen han, lanik ez zuen tarteetan, inurriak bezala hara eta hona urduri mugitzen ziren bidaiarien gainean. Aunitzek begiratzen zioten, obsesiboki batzuetan, behin eta berriz, baina inork ez zuen ikusten.

Hala pasatu ziren, tik-tak, tik-tak, segundo, minutu, ordu, aste, hilabete eta urteak. Halako batean bidaiari baten begiak bereekin gurutzatu ziren arte. Elektrizitatea gorputzean. Orratza geldirik. Geroztik, bi segundoko atzerapena du erlojuak.

Egunero itxaroten zuen bidaiaria, kanpaiak hamabi aldiz jotzean. Bidaiari hau ez zen bertzeak bezalakoa: ez zen presaka ibiltzen. Eta beti joaten zitzaion eskapo tren muturren aitzinean. Nahita egiten zuen. Orduan, eseri eta zerbait jaten zuen, edo liburu bat zabaltu, edo bertzerik gabe egon. Eta, orratza bi segundoz gelditu zenetik, beti-beti agurtzen zuen begi kliska batekin. Egun batean, eskuarekin keinu bat egin zion, jaisteko, etortzeko berekin, eta erlojuko bizilagunak kasu egin, eta geltokitik aterra ziren biak. Hala deskubritu zuen, erlojutik at, denbora dela dugun guzia. •

Jubilatuak zatitzeko %3, eta eman eskerrak gobernuari

Bero dator maiatza. Pentsioen gatazka piztuta dago eta gizar-tearen alor guztiak ditu zehar-katzen, adinduetatik haurretaraino. %0,25a baino askozaz gehiago dago jokoan eta guztiok gara interpelatuak. Adinekoak gogoz eta indartsu sentitzen dira eta erasora jo dute etorkizun duinaren alde, gaurkoentzat eta bihar-koontzat. Jendarterik anitzeneko manifestazio jendetsuenak egingo dira maiatzaren 5ean eta 26an eta gobernuai (Urkullu jauna eta Barkos anderea barne) enbidoa zaie jaurtiko. Madrilgo Gobernuarentzat hordagoa ere izan liteke.

Inork ez dezala pentsa “gaztetxo” hauek goxoki batzuen ordainetan etsi egingo dutenik. Frankismoaren zaurien orbaina daramate bihotzean eta polizia gris, marroi, urdin, berde, gorri eta beltzaren borrak tatuatuak azalean. Inork baino krisi, gezur, irain eta promes huts gehiago dituzte jasan. Herri honek lortu ongizatearen erantzule nagusiak aparteko espeziea dira, bizkarra sendo kolpatu eta kontzientzia mindutakoa.

Boterean irauteko xedez, kontraerasoa jo du Gobernuak %3ko igoera eskainita! Kontua da espainiar Gobernuari

eskerrak eman, Rafael Hernandoren txuleriak sortu nazka digeri eta %3aren amuarekin zenbat diren konformatuko, hots, zenbatekoa izango den bai ala bai eragingo duen zatiketa.

Nago gatazkak arrakastarik izango badu, mugimendu sozialaren lehen erasoaldian indar guztiak Raxoiren aurka zuzendu behar direla.

Eta harago gure herrian, gizarte zabalaren borrokara biltzea lortuko bada, bigarren mailako arduradunak jomugan jartzea (horretarako daude alderdi politikoak), bigarren zatirako utzi behar-ko dela. •

**Xabier Mikel
Errekondo**